



**EUSKARA SUSTATZEKO
EKINTZA PLANA
2015 - 2018**

Aurkibidea

1. Sarrera	3
2. Prozesua	5
Xedea	5
Atalak	5
3. Diagnostikoa	7
Datu kuantitatiboak	7
Azterketa kualitatiboa	11
4. 2015-2018 Plan estrategikoa	13
Planaren helburu nagusia	14
Esparruak eta helburu estrategikoak	14
5. Planaren jarraipena	25

1. SARRERA

Euskara gure herriaren berezko hizkuntza eta, gaztelaniarekin batera, ofiziala da Euskal Autonomia Erkidego osoan. Hala, euskal herritar orok du eskubidea euskaraz jakiteko eta edozein esparrutan euskara erabiltzeko. Euskal gizartea etengabe adierazten ari da gizarte elebiduna izan nahi duela, eta, horrenbestez, herri administrazioen egitekoa da herritarrei nahi duten hizkuntza ofizialean aritzeko eta bizitzeko eskubidea bermatzea.

Hori dela eta, elebitasun orekatu batera iristeko asmotan, Barakaldoko Udalak **hizkuntza politika** definitu eta sustapen politika hori garatzeko **baliabideak** jarriko ditu. Halaber, elebitasunaren balioen, euskararen eta euskararen erabileraren aldeko **konpromisoa**, **sentsibilizazioa** eta **eredugarritasuna** landuko du.

Zentzu honetan, Barakaldoko Udalak 2015 - 2018 epealdirako, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (txostenean zehar ESEP) diseinatzeko prozesua ireki du 2014. urtean. Plan honen helburu nagusia euskararen erabilera handitzea da; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan bezalaxe, Barakaldon ere aurrerapauso sendoak eman dira euskararen normalizazio bidean. Nolanahi ere, datozen urteetan euskararen ezagutza bermatu eta sendotzearekin batera, Barakaldon ahalegin handia egin beharko dugu euskararen erabilera, apurka-apurka, areagotzeko, hau da, ezagutza eta erabileraren artean dagoen aldea gutxitzeko.

Helburu hori lortze aldera, lehendabizi, euskarak Barakaldon bizi duen egoeraren azterketa kuantitatibo eta kualitatiboa egin da; datu horietatik abiatuta, plan estrategikoa diseinatu ahal izateko.

Plan honen diseinuan Barakaldoko Udalak Eusko Jaurlaritzaren “*Euskara 21. itun berri baterantz*” dokumentuaren printzipio nagusiekin bat eginda, honako hizkuntza politika hau egin nahi luke:

- **Adostasunean oinarritutako hizkuntza politika**

Izan ere, bi hizkuntza ofizial izateak ez du bermatzen bi hizkuntzen arteko berdintasun-egoera izatea. Gure gizartean aukera berdintasunerantz urrats sendoak eman ahal izateko ezinbestekoa da adostasunez jokatzera, hain zuzen ere, adostasun politiko eta sozial zabal batez jokatzera. Euskararen aldeko politika positibo eta eraginkorra eragile politiko eta sozialen eta, azken batean, herritarren atxikimenduaz bakarrik eraman daiteke aurrera.

- **Atxikimendua, egingarritasuna eta erritmo egokia lotzen dituen hizkuntza politika**

Hizkuntza politika ezin da boluntarismoan oinarritu; hizkuntza politikak, eraginkorra izango bada, gizartearen errealitatea hartu behar du aintzat. Eta gizartearen atxikimendua zutoin hartuta, helburu egingarriak ezarri behar ditu, erori gabe ez gehiegikeria antzuetan, ez gutxiegiak arduragabeetan ere. Alegia: aurrerapena ziurtatzen duten eta egingarri diren helburuak behar ditugu.

• Herritar guztiei zuzendutako hizkuntza politika

Hizkuntza politikak era guztietako identitate adskripzioetara zabalik egon behar du, alegia, euskal herritar guztiak, edozein ikusmolde, ideologia, pentsaera nahiz adskripziotakoak direla ere, eroso sentitu behar dira euskararekin.

Euskara herritar guztien ondarea da, eta herritar guztiei dagokie, euskal hiztunei ez ezik, erdal elebakarrei ere, hizkuntza politika finkatzea eta adostea. Horregatik, inork ez du bere burua baztertu behar eta inor ez dugu baztertu behar langintza honetatik, etorkizunari begira herritarron bizikidetzeta eta kohesio soziala sendotzen ari baikara euskara biziberritzearekin batera.

Helburu hauek guztiak aintzat hartuta, lan hau burutu ahal izateko ezinbestekoa izan da herriko eragileen parte-hartzea bultzatzea eta EMUN Hizkuntza Zerbitzuak eta Barakaldoko Udaleko Euskara Zerbitzuaren arteko elkarlana.

Aurkezten dugun txosten honek honako hau jasotzen du:

- Plan estrategikoa diseinatzeko prozesua.
- Euskararen egoeraren azterketa kuantitatibo eta kualitatiboa.
- 2015-2018 epealdiko Plan estrategikoa.
- Planaren jarraipena: Euskararen Aholku Batzordea.

2. PROZESUA

Hausnarketa estrategikoa izan da diagnosa egiteko eta datozen urteetako plangintzaldia diseinatzeko Emunek eta Barakaldoko Udaleko Euskara Zerbitzuak bideratu duten metodologia. Hausnarketa estrategikoaren bidez, egungo egoera aztertze eta etorkizuneko plana definitzen laguntzeko analisia egin da maila ezberdinetan.



Irudia: hausnarketa estrategikoaren prozesua

2.1 XEDEA

Prozesu eta metodologia mota honen **xedea** honako hau izan da: Barakaldo udalerrriaren errealitatea jasotzen duen ESEPerako azterketa kualitatiboa egitea prozesu parte hartzaile baten bidez, eta ondorioz, 2015-2018 epealdirako aplikazio praktikoa izango duen plana diseinatzea eta onartzea.

Xede hori lortzeko, bereziki, helburu hauek landu dira:

- **Lan talde bat osatu da Barakaldoko eragile eta sektore desberdinen iritzi eta ekarpenak jasotzeko.** Guztira 20 pertsonak hartu dute parte egindako hiru bileretan.
- **Euskararen aldeko sentsibilizazio lana egiten hasi da,** bai prozesuaren inguruko sinergiak batzeko, bai gerora begira sor litezkeen ekimenetan eragileen aldeko jarrerak sustatzeko. Alderdi hau bereziki zaindu nahi izan da komunikazioaren bidez eta baita prozesu parte hartzailearen bidez ere.

2.2 ATALAK

Hausnarketa estrategikoak honako atal hauek izan ditu:

1. HASIERA:

- Prestaketa eta antolaketa lanak.
- Informazio bilketa (azterketa kuantitatiboa).
- Lan taldearen osaketa.

2. EGIKARITZA:

2.1. Partaidetza prozesua abiarazi da:

- LAN TALDEA: Lan taldea osatzeko honako prozedura hau jarraitu da:
 - Barakaldoko Udal Batzan ordezkariak duten alderdi politiko guztiek lan taldean parte hartzeko gonbidapena jaso dute.
 - Udal teknikarien artean, euskara teknikariak, gazteria teknikariak, kultura teknikariak, Euskara Udal Erakundeko zuzendariak eta Udal Kirol Erakundeko zuzendariak hartu dute parte.
 - Barakaldoko sektore desberdinetako eragileei (guraso elkarteak, ikastetxeak, euskaltegiak, euskara elkartea, aisia, kirola eta kultura arloko elkarteak) telefonoz deitu zaie eta bilera batera gonbidatu ditugu ESEP plana eta lan taldearen sorrera aurkezteko. Bilera horietara joan zirenen artean lan taldean parte hartuko zuten borondatezko ordezkariak aukeratu dira.
 - Lan taldeak hiru bilera egin ditu eta bertan, guztira, sektore desberdinetako 20 lagun (arduradun politikoak, udal teknikariak, guraso elkarteak eta euskalduntze, hezkuntza, aisia eta kultura alorreko ordezkariak) elkartu dira.
- AZTERKETA: Lan talde honetan prozesuaren oinarria finkatu da. Horretarako Euskara Zerbitzuak bildutako datu kuantitatiboak aztertu eta denon artean Barakaldon euskarak bizi duen egoeraren azterketa kualitatiboa (AMIA) egin da.
- DISEINURAKO proposamenak: Bileretan lehentasunezko arazo eta beharrak zehaztu dira esparruka antolatuta, baita aurrera begirako proposamenak egin ere.

2.2. Barakaldoko Udalak diseinua osatu, hau da, partaidetza prozesuan egindako proposamenak onartu, osatu eta lehenetsi ditu.

2.3. Planaren jarraipen egokia bermatuko duen Euskararen Aholku Batzordearen funtzionamenduaz hausnartu da.

3. ITXIERA :


- Plana osatu: adierazleak eta bestelako aldagaiak zehaztu dira.
- Barakaldoko Udalak Udalbatzan aurkeztu du plana onar dadin.

3. DIAGNOSTIKOA

3.1 DATU KUANTITATIBOAK

3.1.1 EUSKARAREN GAITASUNA BARAKALDON (Eustat, 2011)

- Euskaldunak: % 18.28
- Elebidun hartzaileak: % 28.64
- Erdaldunak: % 53.08



Barakaldoko euskaldunen soslaiak:

- Euskara etxetik kanpo ikasi du, eskolan zein euskaltegian (Barakaldoko euskaldunen %94).
- Gaztea da, 20 urtetik beherakoa.
- Gaztelania euskara baino gehiago eta errazago erabiltzen du.




Datu esanguratsua:

Barakaldon 1981n 1.473 euskaldun zeuden
Barakaldon 2011n 17.679 euskaldun zeuden

3.1.2 EUSKARAREN ERABILERA


- **Etxean** (Eustat, 2011)



Datu esanguratsua:

Barakaldon 4.000 pertsonak erabiltzen dute euskera etxean

- **Kalean** (Soziolinguistika Klusterra, 2011)



Soziolinguistika Klusterrak 1993tik kale neurketak egin ditu Euskal Herriko udalerrietan, azken neurketa 2011n egin zutelarik. Datu horien arabera, Barakaldon, ia 20 urte hauetan euskararen erabilera kalean 0,6koa izan da. Hau da, Barakaldon kalean neurtu diren elkarrizketen 0,6 izan da euskaraz, batez beste.

3.1.3 IMMIGRAZIOA (Barakaldoko Udalaren Gizarte Ekintza arloa, 2014)

2014an 5.986 barakaldar (%5,9) Espainiako estatutik kanpo jaioak ziren. Etorri berrien kopurua, berriz, behera doala dirudi: 2013an baino 700 pertsona gutxiago etorri dira.




Datu esanguratsua:


- Barakaldon 90 nazionalitateko jendea bizi da.
- Aniztasun hau euskarara erakarri behar da, baliabideak jarrita.
- Euskara atzerriko nazionalitateko jendea integartzeko bidea bilakatu behar da.

3.1.4 IRAKASKUNTZA DATUAK (Barakaldoko Udalaren Hezkuntza arloa, 2014)

- **2013-2014 ikasturteko datuak, 2-16 urte bitartekoak:**




- **Batxilergo eta Lanbide Heziketako datuak:**




Ondorio orokorrak


- B eredua nagusi da irakaskuntzako maila guztietan Batxilergoan eta Lanbide Heziketan izan ezik (hautan ez dago B eredurik).
- A ereduak, zenbat eta irakaskuntza maila baxuagoan, orduan eta ikasle gutxiago ditu. Maila igotzen den heinean A ereduak gora egiten du.
- Batxilergoan B ereduan zeudenak A eredura pasatzen direla ematen du (D ereduko datuak DBHn eta Batxilergoan oso antzekoak baitira).
- **Haur Hezkuntzan** azken 10 urteetan D ereduak gora egin du etengabe eta B ereduak behera (2003-2004tik D ereduak ia 17 puntu egin du gora eta B ereduak ia 15 behera).



- **Lehen Hezkuntzan** ere D ereduak gora egin du azken 10 urteetan (ia 14 puntu). A ereduak behera egin du nabarmen (ia 20 puntu). B ereduak gorabehera handiagoak izan ditu, ehunekoetan gora egin badu ere (ia 6 puntu).




- **DBHn** orain dela 10 urte A ereduak zen nagusi (%64). Gaur egun, ordea, D eta B ereduak gain hartu diote. A ereduak 50 puntu baino gehiago galdu ditu, D ereduak 17 puntuz igo da (bikoiztu egin du ehunekoa) eta B ereduak gora egin du nabarmen (ia 34 puntu).



- **Lanbide Heziketan** orain dela hamar urte, Barakaldon ez zegoen D eredurik. Gaur egun, ordea, ikasleen %11k D ereduari ikasten du Lanbide Heziketan.

3.1.5 EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA (Barakaldoko Udal Euskaltegia, AEK, Hizkuntza Eskola, 2014)



Datu hauetan Barakaldon euskara ikasten ari diren helduak baino ez dira agertzen. Pentsatzekoa da inguruko udalerrietan barakaldar gehiago ari direla euskara ikasten hango euskaltegi edo Hizkuntza Eskolan.



Datu esanguratsua:

2014. urtean Berbalagun programan 120 bat barakaldarrek hartu dute parte, euskaltegietan edo Hizkuntza Eskoletan ikasten ari diren euskara kalera atera eta erabiltzeko asmoz.

3.2 AZTERKETA KUALITATIBOA

Lan taldean aritu ziren Barakaldoko eragile, ordezkari eta teknikoek honako AMIA matrizea adostu zuten, Barakaldon sumatzen zituzten aukerak, mehatxuak, indarguneak eta ahulguneak kontuan hartuta. Zehaztu dezagun, alabaina, aukera, mehatxu, indargune eta ahalgune hauek, kasu askotan, pertzepzioak baino ez direla, hau da, eragile hauek Barakaldo udalerrian, eguneroko lanean, antzematen dituzten sentrazioak.

AUKERAK (KANPOKOAK)	MEHATXUAK (KANPOKOAK)
<ul style="list-style-type: none"> • Gazteen artean, euskararen ezagutza maila Barakaldon gero eta altuagoa da, Hezkuntza Sistemak bermatzen baitie ezagutza. • Euskal Autonomia Erkidego osoan bezalaxe, barakaldarengan ere, oro har, jarrera positiboa sumatzen da euskararekiko. • Barakaldon euskararekiko identifikazio politikoa gairatu egin dela dirudi. • Beste herri batzuetan normalizazio alorrean suertatu diren zailtasunetatik ikasi ahal izango da. • Gero eta ikasle gehiago daude euskarazko ereduetan. • Gurasoek gero eta gehiago aukeratzen dituzte euskarazko ereduak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskara oztopotzat ikusten duen jendea dago oraindik Barakaldon, bereziki, euskara ez dakitenen artean. • Barakaldok “erdaldun” fama du. • Barakaldoko hizkuntza paisaian euskarak presentzia gutxi du. • Euskararen erabilera Barakaldoko kaleetan oso apala da. • Euskalduntze sisteman aritzen diren eragileen arabera, azken urteotan, euskara ikasi duen edo ikasten ari den jende askorengan motibazio instrumentala nagusitu da. • Guraso askok uste dute euskara ondo ikasteko nahikoa dela umeak euskarazko hezkuntza ereduetan matrikulatzea. • DBH amaitutakoan ikasle askok gaztelaniara jotzen dute ikasten segitzeko, batzuetan beste aukerarik ez dutelako. • Euskara oso lotuta dago irakaskuntzari edo lan arloko eskakizunei eta ez aisialdiari.

	<ul style="list-style-type: none"> Euskara dakiten askok beldur diote euskaraz egiteari, ziurtasun, konfiantza falta sumatzen dute.
INDARGUNEAK (BARRUKOAK)	AHULGUNEAK (BARRUKOAK)
<ul style="list-style-type: none"> Barakaldoko Udalak euskara bultzatzeko konpromisoa hartu du (Euskara zerbitzua, ESEP plana ...). Barakaldoko Udalak Berbalagun proiektua bultzatu du udalerrian. Barakaldon euskara sustatzen duen "Sasiburu euskara elkarte" dugu. Euskara ikasteko diru-laguntzak banatzen ditu Udalak. Udal funtzionamendua, apurka-apurka, gero eta euskaldunagoa da. Barakaldoko auzoetan euskara lantzen duten kolektibo eta elkarteak daude. 	<ul style="list-style-type: none"> Euskaldunen sareak eta eragile sozialak ez daude koordinatuta. Administrazioaren eta euskara sustatzen duten elkarten artean koordinazio sare egokia behar da. Administrazioak oraindik arazoak ditu euskaldunen hizkuntza eskubideak guztiz bermatzeko. Euskararen ordenantzarik ez dago Udalean. Herritarrek ez dute euskara erabiltzeko aukera handirik eskolatik kanpo. Aisialdirako eskaintza gehiena gaztelaniaz da. Ez dago euskararen aldeko diskriminazio positiborik kultur ekitaldietan. Euskara ikasteko laguntzak urtero bermatuta egon beharko lirateke.

4. 2015-2018 PLANA

Hizkuntza normalizazioaren esparruan urrats sendoa eman nahian, hau da, udalerrian euskararen erabilera sendotu eta zabaltzeko asmoz, Barakaldoko Udalak Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) diseinatu eta garatuko du datozen urteetan.

Plan honek Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak emandako jarraibideak, hau da, Eusko Jaurlaritzaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plana hartu du oinarri. Hala, Barakaldoko Udalaren planak zehaztu eta biltzen dituen ekintzak esparruka daude antolatuak eta esparruak, beren aldetik, helburu estrategiko bakoitzaren arabera (euskararen jabekuntza, erabilera eta elikadura). Bestalde, helburu estrategikoez gain, zehar-lerro bi identifikatu eta jaso dira Barakaldoko Euskara Sustatzeko Ekintza Planean, helburu estrategikoak lortzen lagunduko dutenak: sentsibilizazioa eta motibazioa (etengabe eta esparru guztietan landuko dena) eta euskararen zabalkundea (barne proiektzioaren bitartez landuko dena).

Azterketa kualitatibotik lehentasunezko esparruak aukeratzeko eskatu zaie hausnarketa estrategikoan parte hartu dutenei. Hala, ondorengo esparruak izan dira, Barakaldoko eragileen ustez, 2015-2018ko plangintzaldian landu beharrekoak :

- EUSKARAREN JABEKUNTZA
 - Familia bidezko transmisioa
 - Irakaskuntza
 - Euskalduntze-alfabetatzea
- EUSKARAREN ERABILERA
 - Arlo sozioekonomikoa
 - Aisia eta kirola
- EUSKARAREN ELIKADURA
 - Kulturgintza
- EUSKARAREN ALDEKO MOTIBAZIOA
 - Sentsibilizazioa eta motibazioa
- EUSKARAREN ZABALKUNDEA
 - Barne proiektzioa

4.1 PLANAREN HELBURU NAGUSIA

Barakaldo udalerrian 2018an euskararen egoera zein izango den edo izan daitekeen (BISIOA) irudikatzeneko saiakera egin da lan taldearen bileretako batean:

Nolako izatea nahi zenuke euskararen egoera Barakaldon 2018an?

Jasotako erantzunetatik abiatuta, honako hau izango da, nolabait, Barakaldoko ESEP planaren iparra definituko duen BISIOA:

“Barakaldoko herri bizitzan, funtzio eta gune desberdinetan euskaraz hitz egiteko aukerak handitzea eta, bereziki, kaleko erabileran eragina duten esparruetan (aisia, kultura, merkataritza...) eta adin tartetean (haur eta gazteak) eragitea. Horretarako, Udalak beharrezkoak diren erabakiak hartu eta baliabideak eskura jarriko ditu.”

4.2 ESPARRUAK ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK

Hizkuntza plangintza hiru helburu estrategikoren inguruan antolatu da: jabeakuntza, erabilera eta elikadura.

4.2.1 EUSKARAREN JABEKUNTZA

Euskararen jabeakuntza edo eskuratzeko-prozesuan hiru esparru bereiziko ditugu: **“Familia bidezko transmisioa”, “Irakaskuntza” eta “Helduen euskalduntze-alfabetatzea”.**

Euskara lehen hizkuntza modura belaunez belaun transmititzen da, baina Barakaldo bezalako udalerritan, Eustatek argitaratutako datuen arabera (*EAEko Biztanleria eta Etxebizitza zentsua, 2011*), etxeen %4n baino ez da euskara erabiltzen (eta kasu askotan, euskara gaztelaniarekin batera erabiltzen da). Hortaz, hizkuntzaren transmisio prozesuan, gure udalerrian eskolak eta helduen euskalduntzeak berebiziko garrantzia dute, euskara bigarren hizkuntza gisa transmititzen dutelarik.

Hizkuntzaren geroratzea gainerako helburu estrategiko guztien oinarrian dago. Azken urteetako bilakaeraren arabera, belaunaldi gazteetan jabeakuntza prozesua bermatze bidean dagoela esan daiteke. Etorkizunean ere bermatzen jarraitu beharko dugu eta horretarako hiru bideak (familia bidezko transmisioa, irakaskuntza eta euskalduntze-alfabetatzea) zaindu beharko dira.

4.2.2 EUSKARAREN ERABILERA

Euskararen erabileran gehien eragiten duten faktoreak honako hauek dira: hiztunen kopurua, hiztunek euskaraz egiteko duten gaitasuna edo erraztasuna eta aukerak, inguruan harreman sare euskalduna izatea eta, azkenik, hizkuntzarekiko atxikimendua.

Erabiliz zorrotzen den tresna da hizkuntza. Erabiltzen ez bada, herdoildu ez ezik kamustu eta galdu ere egiten baita. Horregatik zaindu behar dira ondo, hizkuntzaren ikuspegitik betiere, familiaren eta

eskolaren luzapen eta ingurune diren jardunbide guztiak: kultura, aisia, kirola, teknologia berriak, lan mundua, administrazioa, merkataritza, hedabideak eta bestelako zerbitzu eta jarduerak.

Hala, etorkizuneko erronka nagusi modura, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu guztiak bi hizkuntzetan (euskara eta gaztelania) emateko gaitasuna egongo dela bermatu behar da.

Hau guztia aintzat hartuta, Barakaldon “Euskararen erabilera” helburu estrategikoaren barruan, “**Arlo sozioekonomikoa**”, “**Aisia eta kirola**” esparruak landuko dira.

4.2.3 EUSKARAREN ELIKADURA

Hizkuntza eroso eta erraz hitz egin eta erabiliko bada, elikatu egin behar da, euskarazko edukien bidez eta horiek sortzen dituzten euskal eragileen bidez. Euskal hiztunak euskaraz behar ditu ereduak eta edukiak, bere hizkuntza jarduna aberasteko. Hala, lehenik eta behin, euskarazko kalitatezko sorkuntza sustatu eta babestu behar da eta, horrekin batera, euskarazko kontsumoa indartu behar da.

Halaber, garaia da, hizkuntzaren zuzentasunaz gain beste bi irizpide batzuk ere aintzat hartzeko, hala nola, komunikagarritasuna eta adierazkortasuna. Are gehiago, bereziki Barakaldo bezalako udalerrri batean, euskara bigarren hizkuntza gisa jaso duen hiztun berriari lagundu egin behar zaio hizkuntza-ezagupenak sendotzen, euskal kulturaren aberastasunaz jabetzen eta bere harreman-sare euskalduna osatzen eta zabaltzen, horiek baitira komunikagarritasuna eta adierazkortasuna elikatzen dituzten osagaiak.

Alde horretatik, “Euskararen elikadura” helburu estrategikoaren barruan “**Kultura**” esparrua landuko da Barakaldon.

4.2.4 ZEHAR LERROAK

4.2.4.1 EUSKARAREN ALDEKO MOTIBAZIOA

Euskararen aldeko motibazioa eta sustapena lantzea zentzu zabalean ulertu behar da, hau da, jabetza zein erabilera prozesuetan; izan ere, motibazioa ezinbesteko baldintza izaten da askotan hizkuntza ikasi eta erabiltzeko.

Euskara lehen hizkuntza gisa jaso ez duten herritarrek (barakaldar gehienak) batzuetan zailtasunak izaten dituzte komunikatzeko orduan, beren ezagutza mailak mugak dauzkalako edo dakitena adierazterakoan faktore psikologiko ezberdinek (lotsa, konfiantza, ziurtasun eza...) komunikazioa oztopatzen dutelako.

Erabileraren ikuspegitik, bestalde, motibazioaren eremuan sartzen dira euskara erabiltzeko argudioak ematea, hizkuntzen erabileran gerta daitezkeen egoerak kudeatzeko estrategiak eskaintzea, eredu onak zabaltzea edo, esate baterako, hizkuntza jakitetik erabiltzera dagoen jauzia egiten laguntzeko estrategiak lantzea.

Motibazioa ez da erraz lortzen diren ezaugarrietako bat, baina, behar-beharrezkoa da euskararentzako erabilera-eremuak irabazi nahi badira. Hori dela eta, plan honetan jasotzen diren ekimenen bitartez, etengabe, motibazioa eta sentsibilizazioa sendotzeko ahalegina egingo da.

4.2.4.2 EUSKARAREN ZABALKUNDEA

Euskararen erabilera sendotuko bada, behar-beharrezkoa da, alde batetik, euskararen erakargarritasuna lantzea eta era egokian proiektatzea eta bestetik, euskararen irudiari prestigioa ematea. Izan ere, hizkuntzaren erabilera areagotzeko giltzarrietako bat euskarara hiztun gehiago erakartzea da.

Euskararen erakargarritasunak eta prestigioak zaharkituak geratu diren aurreiritzien gaitetik, elebitasuna sendotzea ekarriko du, besteak beste, euskaratik urrun sentitu izan diren herritarrei euskarara hurbiltzeko bideak erraztuko baitizkie.

Aurreko guztia aintzat hartuta, Euskara Sustatzeko Ekintza Planeko helburu estrategikoak neurri nagusitan antolatu ditugu eta horiek ekintza zehatzetan.

Hurrengo orrialdeetan jasotzen diren fitxetako osagaiak honako hauek dira:

- a) **Neurria:** Esparruari loturiko helburu zehatza islatzen du.
- b) **Adierazleak:** Planaren jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, neurri bakoitzaren betetze-maila neurtzeko proposatzen dira adierazle hauek.
- c) **ESEPeko ekintza:** Eusko Jaurlaritzaren ESEP plan orokorrari dagokion ekintzaren izena jaso da atal honetan.
- d) **Ekintza:** Barakaldoko ESEP planerako proposatzen den egitasmo edo programa zehatza da.
- e) **Arduradunak, aliantzak:** Neurria betetzeko ardura edota parte-hartzea izango duten erakunde edo eragile publiko zein pribatuak dira.
- f) **Kronograma:** Urtez urteko lehentasunak ezarri dira kronograman. Berdez agertzen da ekintza edo programa zehatza noiz proposatzen den hastea. Urtez urteko kudeaketa planean zehaztuko du Euskara Zerbitzuak proposamen bakoitzaren egikaritzea.

BARAKALDO ESEP 2015-2018									
ESPARRUAK ETA HELBURUEN HEDAPENA									
Esparrua	FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA								
Helburu estrategikoa	Neurria	Adierazleak	ESEPeke ekintza	Ekintza	Arduradunak, aliantzak	Kronograma			
						2015	2016	2017	2018
Euskararen jabekuntza	1. Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea	Euskararen erabilera datuak Ekimenetan parte hartu duten guraso kopurua D ereduko matrikulazio datuak	1.1 Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea.	1.1.1 Euskal produktuen katalogoak, ipuinak, kantak ... eskaini	Udala Guraso elkarteak				
			1.2 Guraso eta gurasogaien hizkuntza-ohituren aldaketarako erraztasunak ematea.	1.2.1 Kontzientziazio eta sentiberatze programak martxan jarri: hitzaldiak, materiala (ipuinak, kantak, ...)	Udala Guraso elkarteak				
				1.2.2 Gurasoentzako sentiberatze hitzaldiak	Udala Guraso elkarteak				
				1.2.3 Gurasoentzako euskara klaseak	Udala Guraso elkarteak Euskaltegiak				
	2. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea	EUSTAT-eko datu soziolinguistikoak (inkesta soziolinguistikoa)	2.1 Euskararen erabilerarako dauden sozializazio guneak baliatzea eta berriak sortzea	2.1.1 "Gurasolagun" erako familia ludotekak / guneak sortu.	Udala Aisialdi elkarteak				
				2.1.2 Umeek gurasoei euskara transmititzeko aukerak sortu.	Udala Aisialdi elkarteak				
				2.1.3 Umeek aitona-amonei euskara transmititzeko aukerak sortu.	Udala Aisialdi elkarteak				
				2.1.4 Kanguru euskaldunen zerrenda/sarea egin .	Udala Inguralde				

BARAKALDO ESEP 2015-2018									
ESPARRUAK ETA HELBURUEN HEDAPENA									
Esparrua	IRAKASKUNTZA								
Helburu estrategikoa	Neurria	Adierazleak	ESEPeko ekintza	Ekintza	Arduradunak, aliantzak	Kronograma			
						2015	2016	2017	2018
Euskararen jabekuntza	1. Ahozko hizkuntza-jarduna lantzea, bereziki eremu soziolinguistiko erdaldunagoetan	Erabilera datuak Ahozko jarduna lantzeko ekimen kopurua Sarea sortuta	1.1 Ahozko jardunaren ahuleziak gainditzeko, irakasle zein ikasleei begirako estrategia egokia lantzea.	1.1.1 Irakasleen arteko sareak antolatu, ekintza plana adosteko. Kontzientziazioa landu irakasleekin.	Udala Ikastetxeak Berritzegune				
	2. Euskararen erabilera soziala hezkuntza arloan aztertu eta bultzatzea	Ikastetxeetako erabilera datuak Eskolaz kanpoko euskarazko eskaintza kopurua Eskolaz kanpoko euskarazko ekimenetan gazteen parte hartze kopurua	2.1 Ikasleen aisialdia eta interesekin loturiko euskararen erabilera suspertzea.	2.1.1 Patioak euskalduntzeko /erabilera sustatzeko dinamikak. 2.1.2 Ikasleak euskarazko produkzioaren sortzaile izateko proiektuak landu: Bertsolaritza, Antzerkhizkuntza, Euskara pitzuz, ...	Udala Ikastetxeak Aisialdi elkarteak Udala Ikastetxeak Berritzegune				

BARAKALDO ESEP 2015-2018									
ESPARRUAK ETA HELBURUEN HEDAPENA									
Esparrua	EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA								
Helburu estrategikoa	Neurria	Adierazleak	ESEPeko ekintza	Ekintza	Arduradunak, aliantzak	Kronograma			
						2015	2016	2017	2018
Euskararen jabekuntza	1. Ezagutza handitzea	Ezagutza datuak	1.1 Ezagutza handitzeko neurriak hartzea	1.1.1 Familia etorkinentzako AISA ikastaroa	Udala Euskaltegiak				
		Diru-laguntzak		1.1.2 Euskara ikasten duten ikasleentzako diru-laguntzak	Udala				
	2. Gelaz kanpoko jarduerak sustatzea, erabilera praktika eta uztartuko dituztenak	Parte hartze kopurua	2.1 Euskarazko harreman-sareak trinkotzeko eta talde-dinamikak sortzeko aukerak ematea	2.1.1 Gelaz kanpoko ekimenak martxan jarri: tailerrak, hitzaldiak, ...	Udala Euskaltegiak Sasiburu				
				2.2 Mintzapraktika egitasmoak zabaltzea	1.2.1 Berbalagun egitasmoa zabaldu: ikasleak, gazteak, euskaldun osoak, gurasoak, ...	Udala Sasiburu Euskaltegiak			
			1.2.2 Mintzodromoa		Udala Sasiburu Euskaltegiak				

BARAKALDO ESEP 2015-2018									
ESPARRUAK ETA HELBURUEN HEDAPENA									
Esparrua	ARLO SOZIO-EKONOMIKOA								
Helburu estrategikoa	Neurria	Adierazleak	ESEPeko ekintza	Ekintza	Arduradunak, aliantzak	Kronograma			
						2015	2016	2017	2018
Euskararen erabilera	1. Arlo sozioekonomikoa (sentsibilizazioa)	Merkataritza kanpainan hartzen parte duten establezimendu kopurua	1.1 Herritarrengan eta merkatarari eta ostalariengan eragitea, herritarren hizkuntza hautuari egoki erantzuteko, hizkuntza paisaia zaintzeko.	1.1.1 Motibazio kanpaina merkataritza /ostalaritza elkarteekin batera.	Udala Merkatarari eta ostalarien elkarteak				
				1.1.2 Komertzio eta dendetako harremana euskaraz izateko kartel-liburutxoak, hiztegi txikia, esaldiak... eskaini	Udala Merkatarari eta ostalarien elkarteak				
				1.1.3 Euskara erabil daitekeen komertzio /saltoki /tabernak ezagutarazi "Nahi baduzu euskaraz", "Lehen hitza euskaraz" lemapeko kartelak erabili.	Udala Merkatarari eta ostalarien elkarteak				
				1.1.4 Errotuluak aldatzeko laguntza tekniko (itzulpen zerbitzua) eta ekonomikoa (zergak merkatu) emateko bidea aztertu.	Udala Inguralde				

BARAKALDO ESEP 2015-2018											
ESPARRUAK ETA HELBURUEN HEDAPENA											
Esparrua	KIROLA ETA AISIA										
Helburu estrategikoa	Neurria	Adierazleak	ESEPeke ekintza	Ekintza	Arduradunak, aliantzak	Kronograma					
						2015	2016	2017	2018		
Euskararen erabilera	1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera handitzea	Haur eta gazteen erabilera datua	1.1 Euskarazko jarduerak bultzatzea bereziki haur eta gazteei zuzendutako ekintzetan	1.1.1 Ibilaldia, Kilometroak... halako ekimenetan parte hartzeko txangoak / busak antolatzea	Udala Gazte Bulegoa						
				1.1.2 Aisialdian euskararen inguruko elkarteen arteko koordinazioa	Udala Elkarteak						
				1.1.3 Barakaldoko udalak antolatzen dituen aisialdiko ekimenetan euskararen presentzia bermatu	Udala Gazte Bulegoa						
				1.1.4 Sare sozialetan euskararen erabilera bultzatzeko bideak aztertu (lehiaketak, ...)	Udala Elkarteak						
		Euskarazko ekintzetan parte hartzen duen ume, gazte eta guraso kopurua	Euskarazko eskaintza kopurua gaztelaniazko eskaintzarekiko	1.2 Gazteen artean euskararen irudia zehaztu, hobetu eta indartzea	1.2.1 Barakaldoko pertsona ospetsuekin motibazio kanpaina bat egitea.	Udala Elkarteak					
					1.3 Aisialdiko eskaintza modu zabalean ulertuz (zinema, antzerkia, literatura, telebista, musika, etab.), euskarazko ekimenak adin tarte guztietako herritarrei zabaltzea	1.3.1 Herriko elkarteek euskararen erabilera sustatzeko antolatzen dituzten egitasmoak diruz laguntzea.	Udala Elkarteak				
						1.3.2 Urtean zehar egiten diren liburu azoketan euskal produktuak ezagutzera eman.	Udala				

	2. Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera handitzea	Haur eta Gazteen euskararen erabilera datuak	2.1 Entrenatzaileak trebatzeko eta horientzako titulu ofizial eta ez ofizialak lortzeko ikastaroak antolatzea	2.1.1 Begirale edo entrenatzaile ikastaroa euskaraz egiteko dauden aukerak zabaldu taldeen artean.	Udala Kirol taldeak				
				2.1.2 Begiraleekin euskararekiko asertibitatea landu: "Begiraleek asko egin dezakete" eta horrelako ikastaroak zabaldu.	Udala Kirol taldeak Aisialdi elkarteak				
		Parte hartzen duten ikastetxe eta kirol klub kopurua	2.2 Kirol elkarteentzat euskararen erabilerari lotutako sariak eta txapelketak antolatzea	2.2.1 Eskola kirolaren jaietan eta halakoetan sariak euskaraz eman.	Udala Ikastetxeak UKE				
		Kiroldegiko euskarazko eskaintza kopurua	2.3 Kirol eta hizkuntza normalizazio eragileen arteko komunikazioa, artikulazioa eta koordinazioa hobetzea, batez ere eskola kirolean eta kirol federatuan	2.3.1 Eskola kirola: Guraso elkarteak sentiberatu, begiraleak / entrenatzaileak aukeratzeko orduan, elebidunak aukeratu eta euskara erabil dezaten bultzatzeko.	Udala Guraso elkarteak				
		Kiroldegiko euskarazko eskaintzan parte hartzen duten herritar kopurua		2.3.2 Kirol federatua: kontzientziazioa landu euskararen erabilera sustatzeko.	Udala Kirol taldeak				
				2.3.3 Herriko kiroldegietako kirol ikastaroetan euskarazko eskaintza handitu.	Udala UKE				

BARAKALDO ESEP 2015-2018									
ESPARRUAK ETA HELBURUEN HEDAPENA									
Esparrua	KULTURGINTZA								
Helburu estrategikoa	Neurria	Adierazleak	ESEPeko ekintza	Ekintza	Arduradunak, aliantzak	Kronograma			
						2015	2016	2017	2018
Euskararen elikadura	1. Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea	Euskarazko kultur eskaintza kopurua gaztelaniazko eskaintzarekiko	1.1 Haurrei eta gazteei zuzendutako kultura ekoizpenak lehenestea	1.1.1 Antzokiaren programazioak euskararen erabilera kuota bat izan dezan eskatu / landu.	Udala Barakaldo Antzokia				
				1.1.2 Euskarazko ikuskizun erakargarriak herrira ekarri.	Udala				
				1.1.3 Haurrei eta gazteei zuzendutako ekitaldietan euskara lehenestea.	Udala				
		1.2 Elebidun pasiboak erakartzeko kultura ekintzak antolatzea	Udala Euskaltegiak						

BARAKALDO ESEP 2015-2018									
ESPARRUAK ETA HELBURUEN HEDAPENA									
Esparrua	KOMUNIKAZIOA (BARNE PROIEKZIOA)								
Helburu estrategikoa	Neurria	Adierazleak	ESEPeke ekintza	Ekintza	Arduradunak, aliantzak	Kronograma			
						2015	2016	2017	2018
Komunikazioa	1. Euskara eta euskarazko kultura ezagutaraztera bideratutako ekitaldi eta ikuskizunak diseinatzea	Ekitaldietan parte hartzaile kopurua Komunikazio-ekintza kopurua eta betetze maila	1.1 Euskararen eta euskarazko kulturaren gaineko aurkezpenak egitea	1.1.1 Barakaldoko euskarazko sortzaileen sarea sortu	Udala Gazte Bulegoa Elkarteak				
				1.1.2 Barakaldon ekoizten den euskarazko kultura zabaltzea.	Udala				
			1.2 Euskararen nazioarteko egunaren proiektzioa sendotzea	1.2.1 Abenduaren 3ko astean euskaraz egiten diren adierazpen guztien koordinazioa eta komunikazioa hobetu.	Udala Elkarteak				
				1.2.2 Udalaren atxikimendua eta inplikazioa bilatu abenduaren 3ko ekitaldietan; adierazpen instituzional bat egin, ...	Udala				
1.3 Webgune erakargarri eta edukiz bete baten bitartez euskarari eta euskal kulturari buruzko informazio aberatsa eskaintzea	1.3.1 Udalaren euskararen webgunea dinamizatu eta edukiz bete.	Udala Elkarteak							

5. PLANAREN JARRAIPENA

Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteari begira, neurri bakoitzaren betetze-maila neurtzeko adierazleak proposatzen dira. Udalak, urtez urteko plana onartzen duenean, adierazle horiek landu, doitu eta egokitu beharko ditu dauzkan baliabideen arabera.

Planean bertan, lehentasuneko ekintzak proposatzen dira. Hala ere, hau ez da proposamen itxia ez eta aldaezina ere. Egoeraren eta unearen arabera ekintzak egokitu beharko dira, berriak gehituz edo daudenen egitekoa berraztertuz. Hortaz, Barakaldoko Udalak bere inguruko errealitatea kontuan hartuta neurrien lehentasuna edota gauzatzeko-garaia zehaztuko du urtez urteko kudeaketa planean.

Halaber, komenigarria izango litzateke planaren jarraipena egiteko gune nagusia **Euskararen Aholku Batzordea** izatea. Hona hemen Euskararen Aholku Batzordea osatzeko egiten den proposamena:

- **Nola antolatu?** Antolaketa parte-hartzailea, komunikatiboa, konfiantza giroa sustatuko duena eta partaideek bere sentituko dutena.
- **Zertarako?** Planari jarraipena egiteko eta planaren inplementazioan aholkuak emateko. Izan ere, Batzordearen helburu nagusia izango da urteko kudeaketa plana betetzen dela zaintzea, baita hobetzeko iritzi eta proposamenak ematea ere. Nolanahi ere, Batzorde honen izaera aholkularia aintzat izanik, gogorarazi behar da ez duela erabakimenik izango.
- **Zeinek hartu behar du parte?** Gehienez ere, 20 pertsonako talde finkoa eta guztiz boluntarioak osatuko du EAB. Hala ere, zenbait helburutarako lan-talde txikiagoak egitea posible litzateke. Parte-hartzaileek ordezkokoak izendatu beharko lituzkete.
 - o Barakaldoko euskara arloko zinegotzia (batzordeburua izango da)
 - o Barakaldoko kultura eta euskara arloko idazkaria (batzordeko idazkaria izango da)
 - o Alderdi politikoetako ordezkariak
 - o Euskara teknikaria
 - o Barakaldoko Udal euskaltegiko ordezkaria
 - o Euskara Elkartearen ordezkaria
 - o Euskalgintzarekin zerikusia duten elkarten ordezkari bana (Euskaltegiak, Hizkuntza Eskola, Berritzegune/Ikastetxeak, Guraso elkarteak, Aisia elkarteak, Kultura elkarteak, Kirol elkarteak eta Merkataritza eta Ostalaritza elkarteak) – Eremu bakoitzeko kide bakarra izendatuko da.
 - o Gonbidatu bereziren bat tratatu beharreko gaiak hala eskatuko balu
- **Zer gai landu behar da?** Plan estrategikoaren eta urtez urteko Kudeaketa planaren helburuak, ekintzak eta neurriak aztertu beharko lirateke.
- **Zer maiztasun izan behar du?** Urtean ohiko hiru bilerak. Hala ere, beharrezkoa den guztietan Batzordeko lehendakariak edo Batzordeko kideen herenak ezohiko bilerak deitu ahal izango dituzte. Bilera guztien aurretik, partaide guztiei bidaliko zaie deialdia eta gai-ordena, zortzi egun lehenago gutxienez. Bilera guztien ostean, berriz, akta bidaliko zaie parte-hartzaile guztiei. Euskararen Aholku Batzordearen bilerak baliozkoak izan daitezten, gutxienez deitutakoen erdiek gehi batek parte hartu beharko dute. Hala ere, batzordeburuaren eta idazkariaren parte-hartzea nahitaezkoa izango da, batzarrak baliozkoak izango badira.